



Iruñeko Antso III.aren 1035eko agiria: faktore feudal eta politikoak banaketaren mitoaren atzean



Ikaslea: BENGUA PEREZ, MIKEL

Gradua: HISTORIA

Ikasturtea: 2014/2015

Tutorea: LARREA CONDE, JUAN JOSÉ

Saila: ERDI AROAREN, ARO BERRIAREN ETA AMERIKAREN HISTORIA

Jakintza arloa: ERDI AROA

Data: 2015/06/26

-Lanaren laburpena

Antso III.ak 1035an idatziriko dokumentuaren inguruan luze eta ugari idatzi da denbora askoan zehar. Errege iruindar honek XI. mendean eskuraturiko nagusigo politikoak, lurralde ezberdin asko bere kontrolpean metatuz, hurrengo mendeetan pertsonaia honi eman zitzaion garrantzia historikoa bideratu zuen. Seguruenik arrazoi honengatik, XX. mendearen bigarren erdira arte Antso III.ak bere erresuma edo domeinuekin semeen artean eginiko banaketaren mitoa izan zen ikuspuntu nagusia gertakizun historiko hau aztertzerakoan, gerora garatu ziren erresuma hispaniko nagusien (Gaztela eta Aragoi, batik bat) sorburu gisa planteatuz. Zentzu honetan, 1035eko dokumentu hau sarritan errege iruindar honek buruturiko ustezko testamentu gisa aurkeztua izan zen denbora askoan zehar.

Baina egia esan, jada testuaren edukia gainetik ikusiz bereiz daiteke agiri honetan ez dagoela inongo testamenturik, eta bertan ez dela erresumaren banaketa formal bat ematen; benetan azaltzen dena Antso III.ak bere seme Ramirori eginiko lur-dohaintza bat, eta azken honek bere anaia Garzeari eginiko zin bat da. Horrela, XX. mendearen bigarren erditik garaturiko planteamendu berriei zentzua jarraituz, agiri hau bestelako ikuspuntu batetik analizatuko dugu.

Izan ere, testuaren edukiaren atzean XI. mendeko testuinguru iruindarrarekin loturiko beste aspektu batzuk antzematen dira, batez ere feudalizazioarekin eta nobleziaren indartze eta lurraldetzearekin loturik. Zentzu honetan, agirian agertzen den lur-dohaintzak Iruñeko erresumaren periferian gertatzen ari zen baroien interesen lurraldetzea aztertzeko balioko digu; testuaren edukia nagusiki Aragoiko baroien kasuarekin loturik dago, baina ezin dugu ahaztu faktore honek beste iruindar eremu batzuetan ere eragina izan zuela. Bestalde, bai dohaintzan eta baita zinean ere ezartzen diren berme ezberdinek -Gartzea eta Ramiroren arteko harreman onak segurtatzeko ezarriak-, anaia bien arteko erlazioa dokumentuaz haratago nola garatu zen aztertzeko balioko digu, bien portaera aldakorra feudalismoko jaunen arteko adibide tipikoa dela ikusiz. Baina edukiaz gain agiriak ere baditu beste azterbide interesgarri batzuk ere; feudalismoaren zantzu dokumentalei dagokienean -lengoaia eta formarekin loturik, nagusiki- erreferentzia gisa balioko digu, XI. mendeko erdialdean garatzen zebilen formalizazio dokumentala orokorki analizatzerako orduan.



AURKIBIDEA

1-Sarrera.....	4
2-Dokumentuaren izaera eta ezaugarriak.....	4
3-Dokumentua eta interpretazio historiografikoa: banaketaren mitoa eta honen ezegokitasuna ..	6
4-Agiriarekin loturiko bestelako aspektuak: baroien interesen lurraldetzea eta feudalizazio-zantzu idatziak.....	9
4.1- Lur-ondasunen dohaintza: baroien intereres-lurraldetze zantzuak eta honekin loturiko arazo politikoak.....	10
4.2-Dohaintza eta bake-bermeak: Gartzea eta Ramiroren arteko harremanak dokumentuaren atzean	15
4.3-Agiria, feudalizazioaren aztarna dokumentalen erreferentzia gisa.....	18
5-Ondorioak	23
6-Apendizea	26
7-Bibliografia, iturri dokumentalak eta webgrafia.....	29
7.1-Bibliografia.....	29
7.2-Iturri dokumentalak	30
7.3-Webgrafia	30

1-Sarrera

1035eko dokumentu honen inguruko lana egitea planteatu zenean, hasiera batetik garbi egon zen banaketaren mitoaren pertzepzioak guztiz saihestu behar zirela analisia burutzerako orduan, eta garaiko testuinguruarekin erlazionatuz agiriaren benetako mamia azaleraztea zela bidea.

Zentzu honetan, lehen pauso gisa dokumentuaren izaera eta ezaugarriak zeintzuk diren laburbilduko ditugu, ondoren testu honek historiografian izan duen ibilbidea hein handi batean okerreko ikuspuntuan (banaketarenean, alegia) garatu dela ulertzeko. Behin aspektu hauek menperaturik, testuarekin loturiko aspektu interesgarriak aztertzer pasako gara: lurren dohaintza eta baroien territorializazioa, testuko bake-bermeak eta bi anaien arteko harremanak edota agiriaren papera feudalizazioaren ezaugarri dokumentalen erreferentzia gisa, batik bat. Guzti honek material bibliografikoa eta iturri dokumentalak aztergai gisa uztartzeko balioko digu. Amaieran, ondorioak sintetizatuko ditugu, eta apendizean laneko zantzu orokorrekin loturiko irudi gutxi batzuk ikusgai egongo dira.

2-Dokumentuaren izaera eta ezaugarriak

Dokumentu hau, beste hainbat errege-agirirekin batera, San Juan de la Peña-ko monasterioan gorde zen XI. mendetik, eta gaur egun erabilgarri dago *Archivo Histórico Nacional*-ean¹.

Agiriaren ezaugarriei dagokienean, aspektu bakoitza zatika aztertuko dugu. Dokumentua laukizuzen-formatuko pergaminoa da, eta testuaren edukia pergaminoaren barnealdeko aurpegian dago. Kanpoko aldean, aldiz, kronologia ezberdineko zenbait ohar osagarri daude; batetik, barnealdeko edukiaren bi laburpen, laburrena XIV-XV. mendeen artekoa eta luzeena XVI-XVII. mende ingurukoa, eta bestetik *Archivo Histórico Nacional*-aren zigilu eta signaturak. Barnealdeko edukira itzuliz, testuan erabilitako idazkera bisigotiko borobil edo pausatu deiturikoa da ; VIII. mendetik garaturiko idazkera hau XI. mendearen bigarren erdira edo XII. mendearen lehenera arte izan zen erabilia nafar eta aragoar eremuetan. Idazkera mota honen garbitasunak irakurketa dezente errazten du. Dokumentuaren hasieran krismo bat nabarmentzen da -

¹ http://pares.mcu.es/ParesBusquedas/servlets/Control_servlet?accion=3&txt_id_desc_ud=2322356&from_agenda=N

kasu honetan, ohiko *X (ji)* eta *P (ro)* letra grekoekin batera alfabeto latindarreko *S (ese)* letra irudikatu da-, testuarentzako babes edo berme jainkotiarra irudikatzeko asmoarekin.

Agiriaren originaltasuna aztertzerakoan, lehenik eta behin kontutan hartu behar dugu dokumentuan ez direla ageri ez errege-zeinurik, ez testiguen aipamenik eta ezta eskribaren inguruko erreferentziarik ere. José Ángel Lemaren aburuz, faktore hauek -batez ere errege-zeinuaren absentsia-, agiria originala ez denaren seinale dira, dokumentua kopia soila izango litzatekeelarik². Aurrerago aztertuko dugun bezala, Lacarraren arabera baliteke zinaren zatia jada Antso III.a hil ostean, Ramiro eta Gartzearen arteko harremanak hobetzerakoan, idatzi izana. Beste aukera posible bat –eta hau ere aurrerago aipatuko dugu- Ramiroren zigilu gabeko dokumentuaren kopia izatea da. Dena dela, agiria originala ez izatekotan ere, honek ez luke suposatu behar edukia fidagarria izan ezin denik: Carlos Lalienak adibidez, dokumentua fidagarritzat jotzen du, bere esanetan jada 1135an muga nafar-aragoarraren zehazpen batzuk burutzerako orduan, agiri hau kontsultatu zenaren zantzuak baitaude³.

Dokumentua latinez idatzia dago –puntualki aurrerago aztertuko ditugun jatorri arabiarreko zenbait hitz erabiltzen badira ere- eta seguruenik, betiere Lalienaren hitzei erreparatuz, ahoz buruturiko zeremonia bateko transkribaketa islatuko luke. Honetaz gain, azpimarratu beharra dago agirian ez dela inongo datarik agertzen. Dena dela, Antso III.a zendu aurretik (1035eko urriaren 18an) gauzatu zela planteatzen da; iradoki denez, ez zen erregea hil baino askoz lehenago idatzi, agian urte bereko udaberri edo udan⁴. Aurretik aipatu dugun bezala, testuak ez du bere idazlearen eta ezta lekukoaren inolako sinadura edo aipurik, baina suposa genezake erregearen eskribaren batek idatzi zuela.

Agiriaren antolaketa eta edukiari dagokionez, ezaugarri azpimarragarriena bi testutan banaturik dagoela da, hau da, funtsean pergamino berean bateraturiko bi dokumentuz hitz egiten ari gara. Bi zatiek eduki eta izaera ezberdina dute (batek dohaintza baten forma du eta besteak zin-egite batena), baina biak ere zuzenki loturik daude. Lehenbizikoan, Antso III.ak, lehen pertsonan, bere seme Ramirori toki eta lurralde ugariren dohaintza egiten dio. Lehenbizi, testuaren hasieran erregearen

² Atal honetan, José Angel Lema irakasleak pertsonalki emandako irizpideak erabiliak izan dira, bai aspektu paleografikotan eta baita historikoetan ere.

³ LALIENA CORBERA, C.: “*Illum expugnabo atque inimicus ero. Acuerdos...*”, 230. orr.

⁴ *Ibidem*, 231. orr.

jakinarazpena eta titulazioa (“*Facta carta donationis quod ego Sancius, gratia Dei rex...*”) agertzen dira, eta jarraian jasotzailea (...*dono de terra mea tibi filio meo Ranimiro*”). Honen ondoren, bere xedapenak zehazten dira modu sistematikoan. Bertan Ramirori dohaintzan ematen dizkion eremuak zerrendatzen dira, eta hauek nagusiki Aragoi ibaiaren haranean kontzentratzen dira (Matidero eta Vadoluengo arteko eremuan, zehazki). Dena dela, lurralde honen barruan zenbait salbuespen azpimarratzen ditu Antso III.ak, bere seme Gonzalo eta Gartzeari zenbait toki emanez; lehenengoari Loarre eta Samitier ematen dizkio, eta bigarrenari Ruesta eta Petilla. Honetaz gain, Ramirok gaur egungo Nafarroa, Errioxa eta Gaztelan zehar sakabanaturiko beste toki batzuk ere jasotzen ditu: Oibarreko haranaren inguruan Galipentzu, Leatxe, Sabaiza eta Eslaba; Irati ibaiaren haranean Tabar; Lizarrerrian Alloz, Aztobieta, Amillano, Arbeiza eta Legaria; Iruñerrian eta inguruetan Burutain, Etxarri, Arazuri, Sarriguren, Ibero eta Olatz; Errioxan Daroca, Baños del Río Tobia eta Soto de Cameros; Gaztelan, azkenik, Rubena.

Dokumentuaren bigarren testuan adierazlea aldatu egiten da, kasu honetan Ramiro bera baita lehen pertsonako subjektua. Lehenbizi, Ramirok bere titulazio eta filiazioa azaltzen ditu (“*ego Ranimirus, prolis Sancioni regis*”), eta baita bere zinaren jasotzailea ere (“*tibi germano meo domno Garcia*”). Ondoren, zerrendaturiko autoritate zerutiar batzuen izenean, inbokazio-klausula antzeko batean, bere zina bermatzen du. Azken honekin loturik, jarraian bere zin-egitearen xedapenak azaltzen ditu; bere aitak eginiko dohaintza zintzoki kudeatuko duela bermatzeko (testua hasteko erabiltzen den *ita* hitzak zentzu hori indartzen du), Ramirok bere anaia Gartzearen –erresumaren oinordekoa- ondasun eta lurraldeak ez dituela erreklamatu edo erasoko zin egiten du. Are gehiago, etorkizunean Gartzeak beste norbaiten aldetik erasorik jasotzekotan, Ramirok bere laguntza bermatzen dio.

Laburbilduz, ikuspuntu orokor batetik esan genezake agiri hau dohaintza batez (Antso III.ak bere seme Ramirori egiten diona) eta zin-egite batez (Ramirok bere anaia Gartzeari egiten diona) osaturik dagoela. Edozein modutan, jarraian ikusiko dugun bezala, testu honen eduki eta izaeraren analisia ikuspuntu ezberdinetatik jorratu izan da.

3-Dokumentua eta interpretazio historiografikoa: banaketaren mitoa eta honen ezegokitasuna

Agiri honen inguruan izandako interpretazio historiografiko ezberdinak aztertzer pasatuz, berau mendeetan zehar eztabaida luze baten erdian kokaturik egon dela

azpimarratu beharko genuke, eta baliteke faktore honek duela hamarkada gutxira arte testuak bere baitan izan zitzakeen beste interpretazio bide batzuk alboratu izana.

Aski ezaguna da Antso III.ak bere heriotzaren atarian Gartzea, Ramiro, Fernando eta Gonzalo semeen artean eginiko ustezko erresumaren banaketaren mitoa. Badirudi ikuspuntu honen jatorria XII. mendeko *Historia Silensean* dagoela⁵; honen arabera, Antso III.ak, lurralde bakoitzaren etorkizuna aurreikusiz eta berau bideratu nahian, erresuma banatu egin zuen bere lau semeen artean. Gainera, modu honetan –Iruñeko erresumaren jarraikortasunaz gain– ustezko banaketa honek Gaztela eta Aragoiko erresumen abiapuntu juridiko formala suposatuko luke.

Edonola, mendeetan zehar mito honen ikuspuntua sendotzen joan zen, eta historiografia modernoaren garapenaren hastapenetan ideia hau berretsi egin zen. Zentzu honetan, paradigmatikoa da Modesto Lafuente historiagileak 1850-1867 artean gauzaturiko bere *Historia General de España* zabalean kontu honen inguruan eginiko hausnarketa. Lafuentek, batasun nazionalaren zantzua hausturarenarekiko hobesten zen testuinguru batean, errege iruindarrak ustez buruturiko banaketari apurketa zantzuak ematen dizkio (“*rota la obra laboriosa de la unidad*”)⁶, bere semeen arteko borrokei inbidiak ahalbideturiko gerra zibilen kutsua emanez. Gainera, ustezko banaketa honi erreferentzia kronologikoa egiten dio (“*Tal fue la famosa partición de reinos que don Sancho el Mayor de Navarra hizo entre sus hijos poco tiempo antes de su muerte acaecida en febrero de 1035 –sic–*”)⁷, agian banaketa-testamentu agiri baten existentzia suposatuz, edo berau guk aztergai dugun dokumentuarekin identifikatuz.

Honenbestez, Lafuenteren erreferentziarekin interpretazio hau erro sendoekin iritsi zen XX. mendera, eta denbora askoan Antso III.aren ondorengotza azaltzerako orduan ikuspuntu nagusi gisa mantendu zen erresumaren banaketarena. Alabaina, jada mendearen bigarren erdialdean, J. M. Ramos Loscertales, A. Ubieto Arteta edota J. M. Lacarra bezalako autoreen ekimenez interpretazio honen ezegokitasuna agerian geratu zen, gai honen inguruan planteamendu berriak jorratzeko bideak irekiz, garaiko pentsamendu politikoaren testuingurua sakontasun handiagoaz kontutan hartuz⁸.

⁵ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor...*, 343. orr.

⁶ LAFUENTE, M.: *Historia general del reino de Navarra...*, 60. orr.

⁷ *Ibidem*, 59. orr.

⁸ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor...*, 343. orr.

Edonola, ez da ustezko testamentu-banaketa horren agiririk existitzen, nahiz eta sarritan aztergai dugun dokumentua “testamentu” horrekin identifikatu izan den. Baina egia esan, jada testu honen edukia orokorki aztertuz antzeman daiteke ez dela kasua. Alde batetik, testuan zehar erresumaren ondorengotzaren gaia ez delako zuzenki jorratzen, Antso III.ak bere seme Ramirori egindako lur eta herrixka multzo baten dohaintza eta jarraian, Ramirok bere anaia Gartzeari eginiko zina baizik. Lacarrak berak modu argian adierazten du dohaintza hau interpretatu beharreko modua:

Esta donación de tierras y villas no respondía a la sucesión testamentaria del trono pamplonés, sino al deseo de satisfacer el derecho que el hijo, una vez reconocido como tal, tenía en los bienes, rentas y derechos del padre.⁹

Bestetik, erresumaren zatiketaren mitoaren ikuspuntutik lau semeen arteko banaketa formal bat planteatzen zen, baina agiri honetan Ramirok bere aitaren eskutik jasotako ondasunak besterik ez dira aipatzen; beste hiru semeek jaso zituzten lurak ez dira testuan agertzen, salbuespen gisa aipaturiko Gartzea eta Gonzaloren lau tokiez gain. Izan ere, beste hiru semeek dokumentu honetan zehazten ez diren beste bide batzuetatik jarauntsi zituzten beraiei zegozkien lurak. Gartzeak, erresumaren oinordekoa zenez – Ramiro zaharragoa zen, baina Antso III.ak Oibarko Antsarekin ezkontzaz kanpo izandako harreman batetik jaioa- bere aitak eremu ezberdinen gainean (Iruñeko erresuma eta Aragoiko konderrria barne) zituen subiranotasun eta *potestas*-a jaso zituen honen heriotzarekin¹⁰. Honetaz gain, dokumentuan ageri den bezala Gonzalok eta batez ere Ramirok, teoriarik Gartzearen autoritatea gaintetik izanik, eremu hauen barruan lur eta erantzukizunak eskuratu zituzten; honek, praktikan, Aragoiko konderrriaren kontrola Ramirok izatea suposatu zuen, ondorioz erresuma bilakatzeko bidea hartu zuelarik. Fernando eta Gonzaloren kasuan, beraien ama zen Muniaren aldetik jaso zuten herentzia nagusiki. Gaztelako konderrriaren kasuan, Gartzia Santxez kondea –Muniaren neba- 1029an eraila izan zenetik, kondearen titulua Fernandoren eskuetara pasa zen bere amaren bidez, Antso III.a eta Gaztelako noblezia ados jarri ostean. Fernando, konde gisa, bere aitaren subiranotasunaren menpe egongo litzateke berau bizi zen heinean¹¹. Gonzalok amaren aldetik Ribagorzako konderrrian, eta baita Sobrarbe aldean ere, lurak jaso zituen, seguruenik galdurik dagoen beste antzerako agiri baten bidez, Lacarraren

⁹ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 232-233. orr.

¹⁰ RAMÍREZ VAQUERO, E.: “El rey García...”, 129-130. orr.

¹¹ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 229. orr.

aburuz¹². Edonola, Fernandok eta Gonzalok ere Gartziaren subiranotasuna gainetik eduki beharko zuten, teorian.

Seme bakoitzak jasotako herentziarekin izan zuen garapen politikoa aztertzerain sartu gabe, garbi dago ez zela erresumaren banaketa formalik eman, ez behintzat aztergai dugun dokumentuan. Egia da Antso III.aren semeek jasotako herentziek hurrengo hamarkadetan izan zuten garapen ezberdinen ondorioz, ondorengo mendeetan Penintsulako mapa politikoak izango zuen itxura modu erabakigarrian baldintzatu zela; gaur egungo historiografian esaterako, Miguel Ángel Ladero Quesada-k errege iruindar honen heriotzarekin gertaturiko “domeinuen banaketa” Espainiako Erdi Aroko erresuma kristauen historian “mugarri” oso garrantzitsua izan zela gogorarazten du¹³, eta Julio Valdeón Baroque-k Antso III.aren erreinaldia Gaztela eta Aragoiko erresumen sorburuekin lotzen ditu¹⁴. Interpretazio hauek plano luzeago bateko ikuspuntutik logikoak diren heinean, ez dirudi, ikusitakoaren arabera, Antso III.ak bere semeentzako dohaintzak aurreikusitako intentzio politiko hauekin banatu zituenik; lurralde bakoitzak izan zuen bilakaera bera hil osteko hamarkadetan gertaturiko faktore politiko eta belikoen arabera gauzatu zen.

Edozein modutan, garbi dago aztertzen ari garen dokumentua ez dagoela inolaz ere Antso III.ak ustez gauzatu zuen banaketarekin identifikatzerik. Are gehiago, XX. mendearen bigarren erdialdetik jorratzen joan den aipaturiko interpretazio-bideari jarraiki, dokumentu honetatik beste ikuspuntu bat jorratu genezake, garaiko aldaketa politiko estrukturalen eta feudalizazio-prozesuaren zantzuak antzemanetz.

4-Agiriarekin loturiko bestelako aspektuak: baroien interesen lurraldetzea eta feudalizazio-zantzu idatziak

Jada agiriaren ezaugarriak azterturik, eta bere interpretazio historiografikoa hein handi batean ustezko banaketarekin erlazionaturik garatu dela ikusi ostean, dokumentua beste ikuspuntu batetik aztertzen saiatuko gara. Izan ere, agirian XI. mendeko Iruñeko erresumaren barnean gauzatzen ari ziren bestelako aldaketa estruktural batzuk bereiz daitezke, batez ere errege eta nobleen arteko harremani dagokienean. Lehenbizi, testuan agertzen diren eremuen banaketa eta berme ezberdinak oinarri gisa harturik,

¹² LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 233. orr.

¹³ LADERO QUESADA, M. A.: *La descendencia de Sancho el Mayor...*, 79. orr.

¹⁴ VALDEÓN BARUQUE, J.: *La proyección hispánica de Sancho III el Mayor...*, 26. orr.

aspektu hauek baroien interesen lurraldetzearekin erlazionatuko ditugu, eta bide batez garaiko testuinguruko harreman politiko konplexuak azaleratzen saiatuko gara. Bigarrenik, nagusiki testuko zin-egitearen zatia abiapuntu izanik, dokumentu hauetan – batez ere estruktura, forma eta erabilitako lengoaiari dagokionean- *convenientia* edo akordio feudalen zantzuak nola islatzen diren analizatzeari ekingo diogu.

Alabaina, hau guztia burutzen hasi aurretik, monarkia iruindarra XI. mendearen lehen hamarkadetara zein egoeratan iristen den zehaztea komenigarria litzateke. Zentzu honetan, bigarren milurtekoaren hasieran erregea Iruñeko erresumako gizonik boteretsuena da, eta nobleziarekiko dituen kontrol eta loturak oso sendoak dira: erregeak metatzen ditu ondasunik nabarmen eta ugariak (nobleenekin alderatuz ere bai); lur eta nekazal produkzioen gaineko kontrol fiskal egonkorra du, gotorlekuen tenentziak nahi bezala ezartzen eta aldatzen ditu bere nobleen artean, autoritate judicial eta militar nagusia da, Iruñeko apezpikutzak bere konfiantzazko gizonekin kontrolatzen du eta Elizak diskurtso ideologiko-sinbolikoa ahalbidetzen dio, besteak beste. Juan José Larreak “monarkia isidoroar” gisa definitzen duen erregetza sendo bat da¹⁵. Guzti honengatik, badirudi garai honetan oraindik erregeak nobleekiko nagusitasun efektibo handia zuela; hauen patrimonioa ez zen inolaz ere erregearenarekiko alderagarria, eta oraindik ez ziren gotorleku edo tenentzien jabe, honek aristokraziaren botere-ahalmena mugatu egiten zuelarik.

Dena dela, *oraindik* esaten dugunean, gauzak aldatzeko bidean zeudela ikustarazten ari gara, eta aztergai dugun dokumentuaren puntu ezberdinetan, aldaketa estruktural hauekin loturik dauden zantzuak antzeman genitzake.

4.1- Lur-ondasunen dohaintza: baroien intereres-lurraldetze zantzuak eta honekin loturiko arazo politikoak

Dokumentuaren lehen zatian, Antso III.ak bere dohaintza zehazten duenean, gune zehatz bateko nobleziarekiko funtzionalitate bat ageri da. Izan ere, Ramirok jasotzen dituen eremuen multzoari so eginez, eta lurra bere aitaren domeinuetako eskualde ezberdinetatik jaraunsten baditu ere, garbiki bereizten da dohaintza hau eremu zehatz batean errotzen dela batik bat, Vadoluengo eta Matidero artean zehazki. Hau, noski, Aragoiko konderriaren jatorrizko eremuarekin identifikatzen da.

¹⁵ LARREA, J. J.: “El reinado de García el de Nájera...”, 153. orr.

Jada IX. mendetik Aragoiko konderrria berezko izaera politiko, sozial eta eklesiastiko propioa garatzen joan zen. Aurrerago, 943an, Antso II.a Abarkak Aragoiko Konderrria jarauntsi zuen bere ama Andregoto Galindezen eskutik, eta ordutik Iruñeko erregetzarekin loturik zegoen. Modu honetan, bere biloba Antso III.ak ere bere pertsonan Iruñeko erresuma eta Aragoiko konderrria batzen zituen¹⁶. Garai honetan, dirudienez, noblezia aragoarra arazo gabe integratu zen erregeak kontrolatzen zuen harreman-sare egonkorrean, baina aldi berean, Aragoiko baroiek beraien idiosinkrasia politikoa mantendu zutela ulertu behar dugu, aurrerago ikusiko dugunaren arabera.

Antso III.ak bere menpean Aragoi eta beste lurralde ezberdin ugari (dagokien aristokraziarekin) metatu zituenez, logikoa dirudi etorkizunera begira bere semeak hauetako bakoitzarekin loturak sendotzera bideratu izana; testuan bertan antzeman dezakegunez, Aragoiko kasuan Ramiro izan zen aukeratua. Zentzu honetan, azpimarragarria da Eloísa Ramírez Vaquerok lau semeen izenen inguruan egiten duen irakurketa: Gartzeak Ximenotar dinastiaren errege-izen propioa zuen (Antso I.a errege bilakatu zenetik, bere ondorengoek “Gartzea” eta “Antso” izenak txandakatu zituzten), Antso III.a eta Muniaren arteko hiru semeen artean zaharrena izatean, erresuma oinordetzera bideraturik zegoelako; Fernandok garbiki Gaztelako konderrriko dinastiara loturiko izena zeraman, eta baita Gonzalok ere (bere amaren dinastiaren adierazgarri gisa, Ribagorzako lurak bere ama gaztelarraren aldetik jaso baitzituen); Ramiroren kasuan izenak ez dauka bere ondorengo bide politikoarekin erlazio zuzenik, eta baliteke izena Antso III.aren osaba-aitona izan zen Viguerako Ramiroren omenez jaso izana¹⁷. Azken datu honengatik, baliteke Ramiro Aragoiko nobleziarekin harremanak sendotzera bideratzea hasiera batetik aurreikusirik ez egon izana. Edonola, erresumaren oinordekoa oinarri gisa harturik, gainerako anaiek bere inguruko pieza politiko edo diplomatiko garrantzitsu bilakatzeko patua zutela erakusten digu honek guztiak, bakoitzari zegokion proiektuak kutsu dinastiko-familiar bat zuelarik.

Egia esan, Ramiro bera anaia zaharrena izanik –bere jaiotza 1006-1007 artean kokatu da¹⁸–, seguruenez oraindik bere aita bizi zen artean baroiekin harremanak sendotzen hasteko tarte izan zuen. Aurrerago, jada dokumentuan ageri den dohaintza jasota, Aragoiko aristokrazia Ramiroren inguruan kontzentratzen hasten da. Nahiz eta

¹⁶ MARTÍNEZ DÍEZ, G.: *Sancho III el Mayor...*, 35. orr.

¹⁷ RAMÍREZ VAQUERO, E.: “El rey García...”, 127. orr.

¹⁸ *Ibidem*, 126. orr.

teorian bere anaia Gartzearen menpe jarraitu beharko lukeen, Ramirok, seguruenik bere pertsonaren inguruan sendotzen ari den noblezia aragoarraren laguntzarekin, geroz eta modu independenteagoan jokatzeko du. Honek Ramiro *de facto* Aragoiko errege gisa jokatzeko ari zela suposatzen du. Dena dela, esan Ramirok lehen pertsona idatzirikoa garaiko dokumentuetan, inoiz ez du bere burua Aragoiko “errege” gisa aurkeztu; Eduardo Ibarak 1904an bilduriko Ramiroren dokumentu-multzoan, zenbaitetan bere burua “*rex*” gisa aurkeztu du¹⁹, baina Antonio Ubieto Artetak bere *Estudios en torno a la división del reino por Sancho el Mayor*-en Ramiroren dokumentazioa aztertzerakoan adierazten duenaren arabera, kasu hauek orokorrean faltsifikazioak dira²⁰. Izan ere, fidagarriak diren dokumentutan, Ramirok bere burua “Antso erregearen seme” gisa aurkeztu du (“*Ego ranimirus sancionis regis filius*”)²¹. Bestalde, Antso III.a hil osteko lehen urteetan, badirudi Gartzea berak bere anaiekiko zuen nagusigoa mantentzen zuenaren itxura adierazi nahi zuela; 1037an dataturiko agiri batean, Ximeno Gartzez eta bere emazte Antsak Leireko monasterioari eginiko dohaintza bat berrestekoan, honela adierazten da momentuko egoera politikoa:

Garsia, in Christi gratia princeps in Pampilona et in Castella, confirmans.
Ranimirus, in Christi auxilium regulus in Aragone, confirmans. Gandesalbo,
regulus in Suprarbe, confirmans, Sancius, in Christi benedictione episcopus,
confirmans.²²

Ikusten den bezala, Ramiro eta Gonzalo Gartzearrekiko *reguli* gisa azaltzen dira, nagusigo teorikoa nork zuen argi adieraziz. Baina urte batzuen buruan Ramirori egiten zaizkion erreferentziak (eta ez berak bere buruarekiko egindakoak, alegia) aldatu egingo dira; eskribau aragoar eta baita iruindarrek Ramirok Aragoi –eta baita Sobrarbe eta Ribagorzan ere, jarraian aztertuko duguna– “erreinatzen” zuela adieraziko dute²³. Bestalde, Ramiroren dokumentuen fidagarritasunaren inguruan, Ubieto Artetaren balorazioez gain, komenigarria litzateke etorkizunean azterketa gehiago burutzea, Ramiroren estatus politikoari dagokionean balorazio sendoagoak egin ahal izatea bermatzeko.

¹⁹ IBARRA RODRÍGUEZ, E.: *Documentos correspondientes al reinado de Ramiro I...*, III. eta VIII. zbk.

²⁰ UBIETO ARTETA, A.: *Estudios en torno a la división del Reino por Sancho el Mayor...*, 46. orr.

²¹ IBARRA RODRÍGUEZ, E.: *Documentos correspondientes al reinado de Ramiro I...*, XI. zbk.

²² MARTÍN DUQUE, A. J.: *Documentación medieval de Leire...*, 27. zbk.

²³ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor...*, 348. orr.

Badago, halaber, Ramirok eta aragoarrek garatu zuten boterearen beste faktore adierazgarri bat ere, Sobrarbe eta Ribargorzakako eremuen gaineko kontrolarekin loturik. Aurretik aipatu dugun bezala –eta betiere Lacarraren arabera– baliteke eremu hauek Antso III.ak bere seme gazteena zen Gonzalori dohaintzan eman izana. Azken hau 1045an hil zen modu ez oso argian, dirudienez ondorengotza gabe, eta ordutik Sobrarbe eta Ribagorza Ramiroren kontrolpera pasa ziren. Berez, subiranoa Gartzzea izanik, lur hauen gaineko kontrol zuzena bere eskuetara pasa beharko litzateke, baina ez zen horrela gertatu; seguruenik, baroi aragoarrek eremu hauetan zituzten interes eta harremanak sendoagoak zirelako, edota Ramiro berak presionatzen jardun zuelako, Sobrarbe eta Ribagorza aragoarren kontrolpera pasa ziren²⁴. 1035ko dokumentuan aipatzen diren Gonzalori emandako guneak ere (Loarre eta Samitier) Ramiroren kontrolpera pasatu zirela suposa genezake.

Honek guztiak, Antso III.a hil ostean bere domeinuak osatzen zituzten zenbait eremutan talde nobiliarioen lurraldetze-prozesu bat indartzen hasi zela erakusten digu, Iruñeko erregearen kontrolpetik pixkanaka aldentzen hasiz. Guk aztergai dugun agiriak zuzenki Aragoiko kasua arakatzeko balio digu, baina egia esan, beste eremu batzuetan ere antzeko prozesuak eman ziren, erresumaren mendebaldean esaterako, Gaztela Zahar edo *Castella Vetula* gisa izendatzen zen eremuan hain zuzen ere. Lurralde hau berez Gaztelako konderriaren barnean zegoen, eta teorian beraz, Leongo erregeei lotua. Alabaina, badirudi Antso III.ak bertako zati bat, Oka eta Arabako eremuez osaturikoa, bere oinordekoa zen Gartzeari eman ziola²⁵. Hortik gutxira, 1037an Gartzeak Fernandori laguntza eman zion Leongo Bermudo III.ak Pisuerga ibaiaren haranean gauzaturiko erasoari aurre egiteko; azken hau Tamarón-en garaitu eta hil ostean, Fernando Leongo errege bilakatu zen –hildakoaren arreba zen Antsarekin ezkondurik baitzegoen–, eta bere anaia zaharrak emandako laguntza militarra konpentsatzeko, Gartzeari Gaztela Zaharreko lur gehiago eman zizkion, Santanderreko badiatik barnealderantz Okako mendietara zabaltzen zen lurraldea, bertako gaztelu eta tenentziekin²⁶.

Baina, dirudienez, Gartzeak ez zuen lurralde hauetako nobleziaren integrazioa errez gauzaterik izan, hauek aspalditik Leon eta Gaztelan zehar interes eta harreman-

²⁴ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 233-234. orr.

²⁵ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor...*, 354. orr.

²⁶ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 235-236. orr.

sareak erroturik baitzituzten. Eskualde honetan bere autoritateak oinarri ahulak izatean, Gartzekak politika ezberdinak aplikatu zituen: batetik, bere gertuko leinu nafarretako baroien esku utzi zituen Gaztela Zaharreko zenbait tenentzia, seguruenik bertako nobleen kaltetan; bestetik, arlo eklesiastikoan Valpuestako diozesia deuseztatu eta bertako elizak Naiara-Calahorakoaren barne kokatu zituen. Gainera, Donemiliaga-Kukulako monasterioaren domeinuak handitu zituen esparru hauetan²⁷. Edonola, badirudi neurri hauen atzean intentzionalitate politiko garbi bat dagoela, Gaztela Zaharra Iruñeko Erresumaren influentziapen errotzeko helburuarekin. Baina honek guztiak seguruenik kontrako efektua eragin zuen; bertako noble askok oraindik Fernando I.aren domeinuetan interesak izatean, eta aipatu berri ditugun Gartzearen neurriekin –logikoki beraien interesen aurkakoak- desadostasunean egonik, bi bandoen arteko tentsioak areagotzen joan izana ulergarria da. Kasu honetan (bi anaiek mugaldekoko taifa erresumen gaineko parien gaineko kontrolagatik zuten lehiarekin konbinatuz), talka belikoaren emaitza dramatikoak izan zen iruindar interesentzat; Atapuercan Gartzek hil ostean, oraindik nerabea zen Antso IV.a izendatu zuten errege, eta orduan baroi gehiagok Fernando I.aren aginte esparrura -momentu hartan, dezente sendo eta probetxugarriagoa zirudiena- pasatzea erabaki zuten.

Azken finean, bai Aragoi eta baita Gaztela Zaharrean ikusi ditugun baroien botere-lurraldetze joerak pentsaezinak ziren Iruñeko erregeek ordura arte izan zuten monarkia sendo eta kohesionatuaren testuinguruan. Egia da, dena dela, ikusi ditugun bi eskualdeak, Gaztela Zaharra batez ere, ez zirela Iruñeko Erresumaren esparru nuklearreko guneak, eta soilik errege iruindarren botere politikoa X. eta XI. mendeen artean zabaltzen joan zen heinean pasa zirela nafarren kontrolpera; logikoa dirudi, beraz, hedadura txikiko Nafarroa nuklearreko harreman erreal-nobiliario sendoez haratago, lurralde berri hauetako aristokraziak –ikusitako bezala, jada nortasun eta harreman sare propioak zituenak- kontrolatzea zailagoa suertatu izana. Baina benetan deigarriagoa dena, fenomeno hau ondorengo hamarkadetan barnealdeko eremuetara hedatu izana da, aurrerago ikusiko dugun bezala.

²⁷ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor...*, 356. orr.

4.2-Dohaitza eta bake-bermeak: Gartzea eta Ramiroren arteko harremanak dokumentuaren atzean

Baroien interes-lurraldetzearen lehen zantzuen nondik norakoak arakatzeari utziz, eta berriz gure dokumentuaren testuingurura itzuliz, aspektu honekin loturik egon daitekeen beste puntu bat jorraztera pasako gara.

Izan ere, Antso III.ak ezartzen duen dohaintzan, Gartzea eta Ramirori bina gune ematen dizkie bakoitza bestearen domeinuen artean enklabe gisa kokaturik, iruindar-aragoar mugatik gertu; Gartziak Ruesta eta Petilla jasotzen ditu, eta Ramirok Oibar eta Galipentzu. Faktore hau Antso III.aren aldetik aragoar eremuan Ramiro eta Gartzearen arteko etorkizuneko konflikto posible bat ekiditeko berme gisa uler daiteke, eta kontu honen inguruan ikuspuntu ezberdinak jorratu dira. Lalienak, esaterako, ez du berme-asmorik ikusten, amaldeko herentzien arrazoiak baizik, izan ere, kontutan hartu beharra dago bi anaiek ama ezberdina zutela. Gartziaren kasuan, bi gune hauek Antso III.a Muniarekin ezkontzean honen leinuarekin ezarritako konpromisoengatik eskuratuko zituen bi gune hauek, Gonzalok Loarre eta Samitier eskuratzen dituen modu berean. Ramirok bestalde, bere ama Oibarko Antsa izanik, Oibar-Galipentzu haranean bi gune horiek eskuratuko lituzke, eta ezkontza aurretiko harreman honengatik Antsaren leinuarekin ezarritako aliantzarengatik, baita erresuma osoan zehar sakabanaturiko beste hainbat toki ere²⁸, hasieran aipatu ditugunak. Azalpen honek logikoa dirudi, baina ez da bateraezina bermearen ideiarekin. Larreak, esaterako, lau gune hauen banaketak mugarekiko duen simetrikotasuna azpimarratzen du, bakoitzari gaztelu garrantzitsu bat eta gotorturiko beste gune bat ematen dizkiolarik; honek, bi anaien arteko bakea segurtatzea izango luke helburu²⁹. Edonola, logikoa dirudi Antso III.ak Aragoi aldean zatiketaren bat eman zitekeenaren kezka bat izatea, eta jarraian ideia hau berretsiko dugu.

Izan ere, aztergai dugun dokumentuaren bigarren zatia ere, Ramiroren zingitearena, Antso III.ak bere semeen arteko bake eta zintzotasuna segurtatzeko eginiko berme gisa uler daiteke. Funtsean, garbiki ikusten da Ramirok Gartziarekiko eginiko ez-erasotzeko itun bat dela, eta are gehiago, etorkizunean laguntza militarra bermatzen dio,

²⁸ LALIENA CORBERA, C.: “*Illum expugnabo atque inimicus ero*. Acuerdos...”, 234. orr.

²⁹ LARREA, J. J.: “El reinado de García el de Nájera...”, 155. orr.

Gartzearen autoritate nagusia onartzen duela ikustaraziz³⁰. Baina Gartzea eta Ramiroren arteko harremanen garapenak zin-egite honetan planteaturikoaz haratagoko errealitate bat islatzen du. Izan ere, badirudi harreman hauek nahiko aldakorrak izan zirela, gatazkatsuagoak beraien aita hil ondorengo lehen urteetan, eta lasaiagoak aurreragokoetan.

Horrela, Ramirok baroi aragoarren inguruan bere botere faktikoa indartzen hastearren, Antso III.ak ezarririko dohaintzekiko desadostasunagatik, edota Gonzalori zegokion ondasunen gaineko kontrolarengatik lehiatzearen –azken hau ez zen 1045ra arte hil, baina bizi zen artean ere ez dirudi bere eremuen gaineko kontrol eraginkorrik gauzatu zuenik³¹-, bi anaien arteko tentsioak areagotu zirela uler genezake. Zentzu honetan, interesgarria da anaia bakoitzak izandako jokabidea aztertzea. Gartzeak esaterako, 1038an dataturiko dokumentu batean, San Juan de la Peña-ko monasterioari Antso III.ak kenduriko ondasun batzuk itzultzen dizkio bere borondatez³²; honen interpretazio posible bat izan daiteke Gartzeak monasterio honen (eremu aragoarrear, garaian zegoen zentro erlijioso nagusienetakoa dudarik gabe, pisu eta influentzia politiko-eklesiastiko nabarmenarekin) onespena bilatu nahi izana, agian Aragoan zuen autoritatea kolokan ikusten zuelako.

Edonola, ez dirudi Gartzeak Aragoan teoriaran zegokion Ramiroren gaineko kontrol efektiboa gauzatzerik izan zuenik. Are gehiago, agian bere aitaren dohaintzen banaketarekin ados ez egotearren edota bere inguruko baroi aragoarren inguruan botere sendoa bermaturik edukitzearen, Ramirok bere anaiaren aurkako ekintza militar zuzena gauzatzeko pausua eman zuen, eta badirudi borroka Tafallan eman zela. 1043an dataturiko dokumentu batean, Gartzea erregeak jaun Antso Fortuñonesi Ororbiako herria, bertako eliza eta zaldi bat ematen dizkiola ezartzerakoan, ondorengoa esaten da:

(...) illo equo fuit de regi dompno Ranimiro que fuit captum in illa arrancata de Tafalla, et iam abeo hoc equum aput me et cum sella et freno de argento.³³

Dokumentu hau 1043koa baldin bada ere, ezin dugu zehazki jakin gertaera beliko hau noiz eman zen, baina logikari erreparatuz 1035-1043 artean gertatu zela uler genezake, modu orokor batean. *Historia Silenseak* ere datu hau berresten du; badirudi

³⁰ LALIENA CORBERA, C.: “*Illum expugnabo atque inimicus ero*. Acuerdos...”, 232. orr.

³¹ RAMÍREZ VAQUERO, E.: “El rey García...”, 143. orr.

³² UBIETO ARTETA, A.: *Cartulario de San Juan de la Peña...*, 72. orr.

³³ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Documentación medieval de Leire...*, 33. zbk.

Gartzearen osteeak aragoarrak garaitu zituztela Tafallako bataila edo “arrankaldi” deiturikoan, eta Ramirok hauspearekin eta presaz ihes egin behar izan zuela, bere zaldia, zilarrezko eserleku eta guztiz, Gartzearen gizonek harrapatu zutelarik³⁴.

Baina dirudienez, talka militar honen ostean Gartzea eta Ramiroren arteko harremanak dezente hobetu ziren, iruindar eta aragoarren arteko erlazioen egonkortasuna bermatuz. Hurbilketa honen zantzu batzuk azpimarratu genitzake. Martín Duquek, esaterako, Gonzaloren heriotzaren ostean Ribagorza eta Sobrarbeko eremuak aragoarren eskuetara pasatu izana Gartzea eta Ramiroren arteko akordio baten ondorioa izan zela planteatzen du³⁵, aurretik aipatu dugun Lacarraren ikuspuntuarekiko kontrastean. Gainera, bi anaiak Bernardo Roger (Foix eta Couserans-eko kondea) eta Garsindaren (Bigorrako konderriaren oinordekoa) alabekin ezkondu ziren, Gartzea Estefaniarekin eta Ramiro Ermesindarekin, modu honetan bien arteko senitarteko harremanak sendotuz. Bestalde, badirudi Ramirok Gartzearen gortean presentzia jarraitua izan zuela, dokumentu ugari konfirmatzen agertzen delarik, eta laguntza militarra ere eman zion, Gartzeak 1045ean Calahorra musulmanen eskuetatik konkistatu zuenean, esaterako³⁶. Harreman hobetu hauen isla iruindar dokumentazioaren aldetik ere nabari daiteke; 1042eko agiri batean esaterako (gogoratu posible dela jada ordurako Tafallako talka eta desadostasun orokorrak igarota egon izana), Fortun Lopezekin buruturiko ondasun-trukaketa bat zehazterakoan, Ramiro Aragoi errege dela aipatzen da, Gartzeak Iruñean eta Fernandok Leonen erreinatzen duten heinean³⁷. Estatus honen kontsiderazioa, agian, harreman hobetuen seinale gisa interpreta daiteke.

Garbiki ikusten denez, aztergai dugun dokumentu nagusiko zinean planteaturiko egoera, praktikan Tafallako borrokaren ostean gauzatzen da. Aspektu honek 1035ko agiriaren inguruko hausnarketara bideratzen gaitu. Zentzu honetan, Lacarraren aburuz, talka belikoaren ostean anaien arteko adostasuna bideratzea lortu zenean idatzi zen benetan agiri hau; lurren dohaintzaren zatia Antso III.a bizi zenean egindako ezarpen baten isla izango litzateke, eta Ramiroren zina Gartzearekin borrokatu ostean

³⁴ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 235. orr.

³⁵ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor...*, 239. orr.

³⁶ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 246. orr.

³⁷ MARTÍN DUQUE, A. J.: *Documentación medieval de Leire...*, 32. zbk.

adostasuna lortu zenekoa³⁸. Honek, bide batez, dokumentua testu originala ez denaren ikuspuntua berretsiko luke, aurretik aipatu bezala Lema irakasleak iradokitakoa.

Egia esan, Gartzea eta Ramiroren arteko harremanak horrela aldatzeak zergati baten galdera sorrarazten du lehen momentu batean. Izan ere, Aragoi zuen autoritatea kolokan ikusirik, eta bere anaiaren inbasio-saiakera bat deuseztatu ostean, Ramirok Aragoi kontrolatzen jarraitzea ikustea ulergaitza suertatu daiteke ginetiko ikuspuntu batetik. Baina egia esan, Ramiroren jokabide aldakorra (hasiera batean zinean ezarririkoa hautsiz, berau Antso III.aren garaian idatzi zela kontsideratuz gero), eta Gartzea berarena jaun feudalen jarrera tipikoa da, momentuko interes eta beharren arabera borroka eta aliantza aldatuz; zentzu honetan, anaien arteko harremana hurrengo hamarkadetan –eta mendeetan- gertatuko zenaren kasu aitzindarietako baten gisa ikus genezake.

1054an Atapuercan Gartzea Fernandoren aurka borrokan hil ostean, errege iruindar berriak, bere seme Antso IV.ak, bere osaba Ramirorekin harreman onak mantendu zituela dirudi. Harreman estu honen isla 1054-1063 artean dataturiko agiri batean (ez du datarik, baina Antso IV.a errege bilakatu zenetik Ramiro Graus-eko batailan hil arteko tarte logikoa da) aurki genezake, bere osabari dohaintza bat egiterakoan, Gartzearen semeak ondorengo hitzekin adierazten du bien arteko laguntasun eta kontseilu-ematea:

Ego supra nominatus Sancius, rex, per amicitatem et fidelitatem et adiutorium et consilium cum Deo mihi detis, dono (...).³⁹

4.3-Agiria, feudalizazioaren aztarna dokumentalen erreferentzia gisa

Gure dokumentuarekin loturiko baroien interesen lurraldetzearen eta anaien arteko harreman politikoak aztertzea jadanik alde batera utziz, testu hau oinarri gisa harturik garaiko dokumentuetan feudalizazioaren zantzuak zein modutan islatzen diren ikustera pasako gara. Gure agiriaz gain, beste testu batzuk erabiliko ditugu prozesua kontrastatzeko, eta bereziki testuen forma, fraseologia eta erabilitako lengoia izango dira azterketa bideratzeko bideak. Zin-egitearen zatiak garrantzia berezia hartuko du aspektu honetan. Egia esan, dokumentu hauetako edukian ere baroien indartzearen

³⁸ LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra...*, 245. orr.

³⁹ MIQUEL ROSELL, F.: *Liber Feudorum Maior*, 1. zbk.

zantzu oso garbiak agertzen dira, baina kontutan harturik hori jada jorraturiko aspektu bat dela⁴⁰, guk geure planteamenduaren arabera burutuko dugu analisisa.

Izan ere, 1035eko gure testuak funtsean akordio feudal baten izaera duela onar genezake, baroien arteko akordio baten tankera duelarik (lur-ondasun batzuen banaketa eta dagokion zin-egitea deskribatzen baititu). Zentzu honetan, Lalienaren aburuz, agiri honen izaera P. Bonnassie eta M. Zimmerman-ek Kataluniako kasuan identifikaturiko basailutza-harreman feudalekin bat etorriko litzateke. Baina, kasu katalanarekiko kontrastean, aurreko hamarkadetan –Aragoin batez ere– mota honetako akordio eta zinak ez lirateke idatziz ezarriko (honek aristokraziaren botere eta eskumenen finkapena saihesteko balio zuelarik, beraz); autore beraren ustetan, alabaina, jada 1020ko hamarkadatik errege eta baroien arteko harremanak ahoz zehazterakoan erabilitako formularioa apalki egonkortzen joan zen, hau aztergai dugun dokumentuan islatuko litzatekeelarik⁴¹.

Garai hartan, Aragoan modu honetako akordio feudalak soilik ahoz ezartzeak –betiere Lalienaren ikuspuntua onartuz gero–, Kataluniako kasuarekiko zegoen kontrastearekin, monarkia iruindarrak oraindik bere aristokraziaren gainean mantentzen zuen kontrol nabarmena adierazi diezaguke, mota hauetako akordioak idatziz ezartzeak baroien eskumenen sendotzea suposatuko lukeenaren zentzuan.

Hala ere, iruindar esparruan ere pixkanaka feudalizazio-zantzuak idatziz azaleratzen joango dira agirien forma eta bestelako aspektutan, eta zentzu horretan, guk aztergai dugun Antso III.aren dokumentua nolabaiteko abiapuntu erlatibo bat izan daiteke. Honekin loturik, kontutan hartu behar dugu agiri honetan ahozko zeremonia bat idatziz jarri zenaren zantzuak egon daitezkeela (gramatikalki guztiz zuzenak ez diren esamoldeak islatzearren, edota *azakia*, *alhodera* eta *alfetna* bezalako hitz arabiarrek erabiltzearren, besteak beste⁴²), eta ezaugarri hau ere beste dokumentu batzuetan antzeman ahal daiteken ikusiko dugu.

Hasteko, 1054-1063 arteko (jada lehenago ikusirikoa) eta 1063-1064ko bi dokumentu erabiliko ditugu kontrastatzeko. Egia esan, bi agiriekin Antso IV.ak bere

⁴⁰ Ikus LARREA, J. J.: “El reinado de García el de Nájera...”, 157-159. orr.

⁴¹ LALIENA CORBERA, C.: “*Illum expugnabo atque inimicus ero*. Acuerdos...”, 232. orr.

⁴² *Ibidem*, 231-232. orr.

osaba Ramiroekin ezarririko akordio beraren inguruan jarduten dute, bakoitzean alde bakoitzak adierazitako ezarpenak islatzen direlarik.

Akordio honetan, Antso IV.ak bere borondatez –eta bere zazpi baroiren testigantzapean-, Ramirori Zangozako gaztelua eta Ondués eta Lerdako herrixkak ematen dizkio dohaintzan, bere osabarengandik jasotako laguntasun eta kontseiluaren trukean. Ondoren, bakoitzak bere agirian ezartzen duenaren arabera (Antso IV.ak 1054-63 artekoan eta Ramirok 1063-1064koan), bata bestearen lurak ez dituztela bereganatuko zin egiten dute, eta haratago, horrela jokatzekotan –eta hau dezente esanguratsua da-, testuan testigu gisa agertzen diren baroiei (Ramiroren agirian zati honetan zerrendatzen dira bere zazpi baroiak) zina apurtu duen jaunarekiko duten zerbitzu-harremana hautsi eta bestearen aldera pasatzeko bermea ematen diete (“...*licentiam do ut attendant ad vos et ponant sei in vestra potestate.*”). Akordioaren azken puntu gisa, bi agirietan, aipaturiko baroiek beraien zin partikularra egiten dute, beraien baroiarekiko duten zerbitzua ez dutela bestelako ondasun edo lurrengatik apurtuko (“...*per nullum avere neque per nulla honore terrena.*”) bermatuz⁴³.

1035eko dokumentuarekin alderatuz, zenbait aspektu esanguratsu azpimarra genitzake testuaren egitura eta formari dagokionean. Esaterako, dokumentu honen osagai nagusi berdinak ditu –dohaintza eta zin-egitea-, baina kasu honetan, dohaintza simple eta laburra den modu berean, zinaren zatia dezente luzatu da, askoz ere konplexuago bilakatuz. Izan ere, 1035koan zina bi alderen artean ematen bazen, (Ramiro eta Gartzea) orain lau alde dira (Antso IV.a, Ramiro eta bakoitzari dagozkien baroiak), hau da, zin ugari dira, eta gainera hauen norabidea ugaria da (Antso IV.ak eta Ramirok bata besteari, bietako bakoitzak beraien nobleei eta baroiek beraien jaunei). Bestalde, azpimarragarria da bigarren akordio honetan, zinetan parte hartzen duten alderdietako bat, baroiena, kolektiboa dela; orain arte pertsonaia indibidualen arteko harreman edota zin-egiteak ikusi ditugu, baina jada akordio honetan baroiak talde gisa agertzea oso esanguratsua da, testuinguru politikoan hartzen ari ziren pisuaren zalantzarik gabeko seinalea baita. Gainera, 1035eko dokumentuan ez da inongo baroiren izenik aipatzen testigu gisa, eta Antso IV.aren eta Ramiroren arteko testu honetan bakoitzarenak aipatzeaz gain, paper oso aktiboa dute akordioan.

⁴³ MIQUEL ROSELL, F.: *Liber Feudorum Maior*, 1. zbk. eta UBIETO ARTETA, A.: *Cartulario de San Juan de la Peña...*, 172. orr.

Honetaz gain, zinen norabideari dagokionean hausnarketa labur bat egitea komenigarria da. Bigarren akordio honetan zinen norabidea ugaria da, eta 1035koan adierazten denaren arabera, aldiz, norabide batekoa (Ramirok Gartzeari eginikoa). Honen aurrean, bi interpretazio posible garatu daitezke. Batetik, feudalizazioarekiko paralelo, jaun edota baroien arteko harremanak konplexuago bilakatzerakoan, dokumentuetako zinetan ere honen isla adieraziko litzateke. Bestetik, zilegi da planteatzea 1035eko dokumentuaren atzean, benetan norabide bikoitzeko zin-egite bat dagoela; guri iritsi zaigun agiria Ramirok bere aldetik ezarri eta gorderikoa litzateke, Gartzearen agiria faltako litzatekeen heinean. Azken finean, Antso IV.aren eta bere osabaren arteko akordioan ere ikusi dugu bakoitzak bere zinak agiri ezberdinetan ezartzen dituztela, eta 1035ekoan ere horrela izan bazen, baliteke ondorengo dokumentu hauentzat erreferentzia gisa jokatu izana zinak ezartzerako orduan.

Bestalde, erabilitako lengoaiari dagokionean, orokorrean fraseologia feudala garatzen doanaren zantzuak daude. 1035eko agirian gertatzen den modura, alde bakoitzak bere zina lehen pertsonan ezartzen du “*iuro/iuramos*”-en bidez, baina honetaz gain, tipikoki harreman feudalen adierazleak diren esamoldeak ikusten dira. Antso IV.ak bere osabarengandik jasotako laguntza eta kontseilua aipatzerakoan, esaterako, kontzeptu feudal klasikoak azpimarratzen dira (*amicitatem*, *fidelitatem* eta *adiutorium*, aurreragoko zita batean ikusi ditugunak), eta baroiek beraien zina ezartzerakoan, “*per fidem sine enganno*” esamolde tipikoa erabiltzen dute.

Edonola, badirudi Antso III.a hil osteko hamarkadetan gertaturiko baroien posizioaren indartzea geroz eta modu argiagoan islatzen dela dokumentuetan erabilitako forma eta lengoaiari. Horrela, jada Antso IV.aren erreinaldiko azken faseko dokumentu batek, 1072an datatua, datu gehiago ahalbidetzen dizkigu. Agiri honetan Iruñeko erregeak bere baroiekin buruturiko konbentzio baten ezarpenak islatzen dira (jada nahiko esanguratsua dena). Testuaren arabera, bi aldeen artean aurretik gertaturiko arazoak adostasun batera helduz konpondu nahi dira (“...*ut sit concordantia bona inter eos et finis omnium malorum*.”). Zentzu honetan, erregearen eta baroien arteko harremanak bata bestearekiko zintzotasun eta iruzurrik gabe burutuko direla ezartzen da, oro har: baroiek ez dute erregea traizionatuko, eta eraso militarren bat jasotzen duenean bere lurra defendatzen lagunduko diote. Gainera, erregearekiko duten zerbitzu-harremana apurtzekotan, berari gaztelua, ondasunak eta hilabeteko hornidurak itzuli

beharko dizkiote. Erregeak, bere aldetik, baroien eskumenen aurka ez duela jardungo bermatzen du, eta tokian tokiko dagozkien legeen arabera epaituko dituela ere bai⁴⁴.

Testuaren zatien antolaketari dagokionean, zerbait aldatu dela ikusten da; bai 1035ekoan, eta baita Antso IV.aren eta Ramiroren arteko akordioan ere lehenbizi dohaintza bat zehazten zen, eta jarraian neurri horrekin loturiko zin-egiteak, berme gisa (bigarren adibidean zinen zatia jada nabarmen konplexuagoa bada ere). Baina 1072ko testuan, Antso IV.aren era bere baroien arteko akordio bat dela azpimarratu ostean, dokumentua ia bere osotasunean alde bakoitzak adierazten dituen zin eta bermeen inguruan ari zaigu hitz egiten. Hau da, aurretik ikusiriko agirietan zinak dohaintza batekin loturik aurkezten ziren heinean, orain jada testuaren gai osoa erregearen eta baroien arteko zin-egiteetan eta akordioetan zentratzen da. Honekin zuzenki loturik, agiriko protagonistak eta hauen papera ere aldatu direla antzeman genezake. Izan ere, beste agirietan ikusi dugunarekiko kontrastean, lehen aldiz testuko akordio nagusia zuzenki erregearen eta baroien artean gauzatzen da; 1035ekoan Ramiro eta Gartzearen artean ematen da, eta Antso IV.aren eta bere osabaren arteko akordioan baroiek ere zin eginaz aktiboki parte hartzen badute ere, hauen papera errege iruindarrak eta Ramirok osaturiko akordioaren arabera gauzatzen da. 1072ko konbentzio honetan beraz, erregeak eta baroiek zuzenki eginiko alde biko akordio bat aurkezten da.

Erabilitako lengoaia feudalari dagokionean, kasu honetan, aurreko agirietan ez bezala, protagonistek ez dute lehen pertsonan zin egiten. Izan ere, testu honek eskriba baten aipamena du, *Enneco* izenekoa, eta testuan berak adierazten ditu alde bakoitzak ezarritako bermeak, hirugarren pertsonan. Zinak adierazterakoan ageri den ezberdintasun hau, eskribaren aipamen zuzenarekin batera, esanguratsua da: Santos García Larraguetaren arabera, Gartzzea Naiarakoaren garaiko dokumentazioan apenas aurki daiteke inongo eskribaren baten aipamenik, baina Antso IV.aren garaikoan aldiz, agirien ia erdiak (119tik 53k) dute eskribaren erreferentziaren bat. Gainera, eskribaren izena aipatzea berorrek testigu eta berresle gisa jokatzeko duenaren seinale da, notario gisa jarduten duen praktikan⁴⁵. Egia esan, faktore hau patroizko dokumentalen formalizatze progresiboarekin lotzea menturazkoegia da momentu honetan, testuen

⁴⁴ LACARRA, J. M.: “Hombres et tenencias en Aragon...”, 1. apendizea.

⁴⁵ GARCÍA LARRAGUETA, S.: “Los documentos de los reyes de Pamplona...”, 17. orr.

transmisioaren inguruan azterketa sakonagoak burutzea eskatzen baitu, baina edonola, Antso IV.aren erreinaldian eskriben erreferentziak ugaritu izana datu azpimarragarria da.

Bestalde, erabilitako esamoldeei dagokienean, esan berri dugun bezala orain hirugarren pertsonan adierazten dira, baina azpimarragarria da, halaber, zinaren aditzaz batera sarritan adierazten dela adostasun edo konbenentziarena (*“Hoc est iuramentum quod convenerunt et iuraverunt rex dominus Sancius et suos barones, ...”* esaterako), akordioa aldebikoa denaren zantzua indartuz. Gainera lengoaia feudaleko kontzeptu geroz eta gehiago bereizten dira, ohorearena *-honore-* esaterako, aurreko testuetan ikusiriko beste esamolde batzuk ere errepikatzen diren heinean (*“per directa fide sine inganno”*, adibidez). Honetaz gain, kuriooa da zenbait hitz arabiar, *alfetna* eta *annafaka* zehazki, erabiltzen direla, 1035eko agirian gertatzen zenaren antzera (bertan *azakia*, *alhondera* eta *alfetna* ageri dira). Ezin dugu zehazki esan kasualitate hutsa den, Lalienak 1035ko testuarekin planteatzen duenarekiko paralelo ahozko zeremonia bat idatziz jarri zenaren aztarna diren edo zinen forma dokumentaletan egonkortzen ari diren esamoldeak diren; azken kasu honetan, 1035ko agiriak erreferentzia gisa jokatuko luke konbentzio honekiko.

Egia esan, hemendik aurrerako dokumentuetan Iruñeko erresuman geroz eta nabarmenagoak ziren feudalizazioaren zantzuak are sakonago adierazten dira testuetako forma eta lengoaian, baina 1035eko gure erroko dokumentuaren erreferentzia ez dugu bistaz galdu behar eta hemen geratuko gara. Ikusitakoarekin, nahikoa dugu agiri honek XI. mendearen erdialdeko iruindar dokumentazioan erreferentzia edo abiapuntu erlatibo gisa jokatu dezakeela onartzeko, feudalizazioaren idatzizko zantzuak aztertzeari dagokionean.

5-Ondorioak

Lan honen hasieran, sarreran aipatu dugun bezala, 1035eko dokumentuak ikuspuntu historiografiko klasikoaz haratago izan zitezkeen zantzu historiko azpimarragarri edota erabilgarriak aztertzea planteatu zen helburu gisa, eta lana garatzen joan den ahala, testuinguruko zenbait aspektu interesgarriekin lotzeko aukera izan dugu.

Egia esan, jada bada denbora bat erresumaren ustezko banaketaren kontua testu honekin lotzea logikaz kanpo geratu dela, baina edonola, komenigarria zen kontu hau

laburki azaleratzea, batez ere agiriari denbora askoan zehar eman zaion garrantzia erlatiboaz jabetzeko.

Dokumentuaren edukia, egitura eta planteatzen dituen gai eta kontzeptuak aztertzerakoan baina, garbi geratu da baduela bestelako interesik. Ramirori eginiko dohaintzarekin loturik, XI. mendeko Iruñeko erresuman periferiako baroien taldeak hartzen ari ziren pisu politikoa azaleratu ahal izan dugu, eta testuko adibideaz haratago kasu gehiago egon zirela ere gogorarazi dugu, Gaztela Zaharrekoa esaterako.

Bestalde, agirian bereizten diren balizko bermeekin –bai lurren banaketan eta baita zinean ere- bi anaien arteko bakea segurtatzeko nahia esanguratsua dela argi geratu da. Izan ere, ikusi dugun bezala, dokumentu honetan ezarririkoaz haratago, Gartzea eta Ramiroren arteko harremanak aldakorrek izan ziren, borroka eta adostasuna txandakatuz; jokabide hau, bide batez, feudalismoko jaunen tipikoa dela gogorarazi beharra dago, hurrengo hamarkada eta mendeetan ohikoa izango zen jarreraren kasu aitzindarietako bat izan daitekeelarik. Bide batez, garaiko dokumentazioak orduko harreman politikoen inguruan hausnarketa malguagoak egitea ahalbidetu digu. Bestalde, jarduera hau baliagarria izan da XI. mendeko dokumentuak sarritan eremu zalantzatsu edota korapilatsuan kokatzen direla ikuskatzeko, eta baita hauek aztertzerakoan arretaz jokatu behar dela ulertzeko ere.

Honetaz gain, 1035eko dokumentua plano idatzi edota formal batetik ere interesgarria dela ikusi ahal izan dugu. Ondorengo hamarkadetako dokumentuekin kontrastatuz, agerian geratu da ildo progresibo bat bereiz daitekeela feudalismoaren zantzu formal eta fraseologikoei dagokienean. Kasu honetan, zinaren zatiak protagonismo berezia izan du, izan ere, 1035ekoan oraindik anaia batek besteari eginiko berme sinplea dena, ondoren akordio konplexuago (norabideei, ezarpenen ezaugarrirei eta parte hartzaileei dagokienean) eta formalizatuago bat bilakatzen doala agerian geratu da.


Edonola, bai zentzu politiko batean, eta baita formal-dokumental batean ere, 1035eko agiria Iruñeko erresuman XI. mendean indartzen joan zen baroien interesen lurraldetzearekin, eta orokorki, feudalizazio prozesuarekin, zuzenki loturik dagoela agerian geratu da. Egia esan, guk azertu ditugun aspektuek erro sakonagoak dituzte, eta denboran luzatzen diren prozesuak dira. Baroien lurraldetzea, esaterako, parien gaineko kontrolarekin eta aberastasun eta promozioa lortzeko garaiko aukerekin loturik dago,

Kordobako kaliferriaren hausturak ahalbideturiko egoera dudarik gabe. Iruñeko erresuman hasiera batean periferian gertatzen ari zen fenomeno bat pixkanaka barnealdera ere hedatzen joan zen, eta 1076ko errege-hilketa eta erresumaren banaketa izan ziren prozesu honen ondorio dramatiko zuzenak. Bestalde, erregearen eta baroien arteko harremanak jada Ximenotar dinastiaren lehen zatiko monarkia sendoaren testuingurutik guztiz aldentzen joango dira, eta ez dira inoiz berdinak izango, feudalismoaren zantzuak geroz eta nabarmenagoak izango direlarik; iruindar baroiei dagokienean, hurrengo hamarkadetan horrela adierazten da *Liber Feudorum Maior*rean Antso Ramirez eta Pedro I.aren garaiko eskumen feudalak azpimarratzerakoan, edota 1134an Gartzzea Berrezartzailea errege gisa beraien artetik aukeratzerakoan. Edonola, kontu hauek nahikoa jakinak dira eta gure lanaren planteamendutik haratago doaz.

Amaitzeko, gaur egunera iritsi zaigun 1035eko testuaren agiriaren izaeraren inguruan aukera ezberdinak planteatzeko parada izan dugu lanean zehar. Baliteke, esan bezala, agiria kopia sinple bat izatea, eta aukera horren barruan, hipotesi bat Lacarrak planteaturikoa litzateke; testua zatika idatzi zela, Ramiro eta Gartzearen harremanak hobetzen hasi zirenean. Bestalde, dokumentua Ramirok gorderiko kopia izan daitekeela ere aipatu dugu, beste dokumentuekin kontrastea egiterakoan. Edozein modutan, agiri honen azterketak puntu interesgarri batzuk azaleratu dizkigun heinean, honekin loturiko gaietan sakontzeko parada dagoela esan daiteke.


6-Apendizea

6.1-1035eko dokumentua (pergaminoaren kanpoaldea).⁴⁶



⁴⁶ http://pares.mcu.es/ParesBusquedas/servlets/Control_servlet?accion=3&txt_id_desc_ud=2322356&fromagenda=N

6.2-1035eko dokumentua (pergaminoaren barnealdea).⁴⁷




Faciat caritatis donationis quod ego. sanctus et filius dei rex. dono de regno meo. tibi filio meo sanimiso. Paga de ma
 caritatis usque in uadum longum. ab omni inderiatiat dono tibi tota illa terra. que antea. ab eis possideas illa pars
 sancta cuncta. propter luas. et sancti antea. cum tota eius uillas. quod antea filius meus quondam l. et a prope cum
 tota suas uillas. et cum petrella. quod antea filius meus quondam l. et a prope cum
 et callipago. cum tota suas uillas. et licia. cum saba. et cum sateluba. et cum tota paritatis. et a llo. cum a gobicat.
 et a bonis. et a uisitat. cum suas uillas. et a fuguri. cum suas uillas. et a si. et a llo. cum suas uillas. et a llo.
 et ollas. et a si. cum suas uillas. et a millano. cum suas uillas. et a si. cum suas uillas. In uisita. licia. et a si.
 et a uisitat. et a malo. et a llo. si ego de uera. Isca tota dono tibi. ab omni inderiatiat. cum in populatum
 qua etiam pro populato. doli. b. a. a.

Ica lupo ego sanimiso pro liciacione rex. tibi germano meo dno ca. p. d. m. p. m. omp. et a p. b. e. a. t. m. a. r. e.
 uisitat. et a p. a. n. c. l. o. s. et a p. a. n. c. l. o. s. et a p. x. i. i. a. p. s. t. o. s. et a p. m. u. s. t. a. r. t. e. s. et a c. o. s. s. o. s. et a p. o. m. i. s. s. e. o. s. d. i. u. a. d. e. l. i. c. a. o. s. i. n.
 antea. non regit. contra tua parat. plus. nisi. que. p. a. d. i. s. m. i. c. i. d. o. n. a. t. e. a. s. u. p. r. a. e. a. s. e. r. i. p. a. u. i. n. e. s. n. o.
 ponam tibi. u. g. a. b. u. a. a. u. a. l. l. h. o. d. e. r. a. que. t. a. b. i. t. u. a. t. e. r. a. a. l. l. a. n. e. p. p. a. c. e. n. e. p. a. l. f. e. a. n. a. n. e. c. u. m. a. u. r. o. s. n. e. c. u. m.
 p. p. i. a. n. o. s. et a si. a. l. i. q. u. i. s. a. u. d. a. c. i. d. i. t. e. p. r. e. h. e. n. s. u. s. f. u. g. i. a. i. n. h. a. c. e. l. u. a. g. o. n. e. q. u. o. d. t. a. b. i. c. o. n. t. r. a. d. i. c. t. e. a. u. a. r. e. s. i. s. a. t. e. u. o. l. u. g. i. a.
 i. n. q. u. a. t. u. a. l. u. g. r. o. c. o. n. t. r. a. i. l. l. u. o. p. p. u. g. n. a. u. o. a. d. i. n. i. m. i. c. u. s. e. t. o.

⁴⁷ http://pares.mcu.es/ParesBusquedas/servlets/Control_servlet?accion=3&txt_id_desc_ud=2322356&fromagenda=N



6.3-Antso III.ak 1035eko agirian ezarririko lur-dohaintza.⁴⁸



⁴⁸ FLORISTÁN SAMANES, A.; MARTÍN DUQUE, A. J.: *Gran atlas de Navarra...*, 35. orr.

7-Bibliografía, iturri dokumentalak eta webgrafia

7.1-Bibliografía

GARCÍA LARRAGUETA, S.: “Los documentos de los reyes de Pamplona en el siglo XI”, in GARCÍA LARRAGUETA, S. et alii: *Folia Budapestina*, Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 1983.

FLORISTÁN SAMANES, A.; MARTÍN DUQUE, A. J.: *Gran atlas de Navarra: tomo II*, Caja de Ahorros de Navarra, Iruñea, 1986.

IBARRA RODRÍGUEZ, E.: *Documentos correspondientes al reinado de Ramiro I desde 1034 hasta 1063 años*, Zaragoza, 1904.

LACARRA, J. M.: *Historia política del reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla: volumen primero*, Aranzadi, Iruñea, 1972.

LADERO QUESADA, M. A.: “La descendencia de Sancho el Mayor”, in BENITO RUANO, E. (koor.): *Sancho III el Mayor de Navarra*, Real Academia de la Historia, Madril, 2003.

LAFUENTE, M.: *Historia general de España desde los tiempos primitivos hasta la muerte de don Alfonso XII: tomo tercero*, Montaner y Simón, Bartzelona, 1930.

LALIENA CORBERA, C.: “*Illum expugnabo atque inimicus ero*. Acuerdos feudales en la formación del Estado aragonés (siglo XI)”, in *Les sociétés méridionales à l'âge féodal. Hommage à Pierre Bonnassie*, Toulouse, 1999, 229-236. orr.

LARREA, J. J.: “El reinado de García de Nájera, entre el viejo y el nuevo orden: rey, barones e infanzones entre la monarquía isidoriana y la feudal”, in *García Sánchez III “el de Nájera”. Un rey y un reino en la Europa del siglo XI. XV Semana de Estudios Medievales, Nájera, Tricio y San Millán de la Cogolla, 2004*, Logroño, 2005, 151-172. orr.

MARTÍN DUQUE, A. J.: *Sancho III el Mayor de Pamplona: el rey y su reino (1004-1035)*, Gobierno de Navarra, Iruñea, 2007.

MARTÍNEZ DÍEZ, G.: *Sancho III el Mayor: rey de Pamplona, “Rex Ibericus”*, Marcial Pons Historia, Madril, 2007.

RAMÍREZ VAQUERO, E.: “El rey García y sus hermanos: enfrentamiento de reyes, enfrentamiento entre hermanos.”, in *García Sánchez III “el de Nájera”. Un rey y un reino en la Europa del siglo XI. XV Semana de Estudios Medievales, Nájera, Tricio y San Millán de la Cogolla, 2004*, Logroño, 2005, 119-149. orr.

UBIETO ARTETA, A.: “Estudios en torno a la división del Reino por Sancho el Mayor de Navarra” in *Príncipe de Viana*, 21. urtea, 80-81. zbk., 1960, 163-236. orr.

VALDEÓN BARUQUE, J.: “La proyección hispánica de Sancho III el Mayor de Pamplona”, in BENITO RUANO, E. (koor.): *Sancho III el Mayor de Navarra*, Real Academia de la Historia, Madril, 2003.

7.2-Iturri dokumentalak

LACARRA, J. M.: “Honores et tenencias en Aragon (XIe siècle)”, in *Annales du midi*, 80. zbk., 1968, 485-528. orr.

MARTÍN DUQUE, A. J.: *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Iruñea, 1983.

MIQUEL ROSELL, F.: *Liber Feudorum Maior*, Bartzelona, 1945-47.

UBIETO ARTETA, A.: *Cartulario de San Juan de la Peña*, Valentzia, 1962.

7.3-Webgrafia

http://pares.mcu.es/ParesBusquedas/servlets/Control_servlet?accion=3&txt_id_desc_ud=2322356&fromagenda=N (2015/06/25 – 20:00)

